

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 63/2014 Foru dekretua, abenduaren 16koa, aldatzen dituen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren arautegiak, abuztuaren 1eko 40/2014 eta 41/2014 foru dekretuez onartuak, hurrenez hurren**

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, bere XII. Tituluko II. Kapituluaren konturako ordainketez dihardu. Haiei buruz zehaztasun handiagoz hitz egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Arautegiaren, abenduaren 1eko 40/2014 Foru Dekretu bidez onartuaren, VII. Tituluan.

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, bere VIII. Tituluko V. Kapituluaren konturako ordainketez dihardu, zeinak garatuta dauden Sozietateen gaineko zergaren Arautegiaren, abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretu bidez onartuaren, V. Tituluko IV. Kapituluaren.

Azaroaren 27ko 26/2014 Legeak honako hauek aldatu zituen: azaroaren 28ko 35/2006 Legea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena; Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Legearen testu bateratua, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua; eta beste hainbat zerga arau. Bada, 26/2014 Legeak eta azaroaren 27ko 27/2014 Legeak, sozietateen gaineko zergarenak, ezarritakora egokitzeko xedez, foru dekretu honen bidez aldatu egingo dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian jarduera profesionaleri dagozkien atxikipen tasak.

Gainera, araubide iragankorra ezarriko da 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arteko aldirako, hauei dagozkien atxikipen tasetarako: jarduera profesionalak; inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak itzuliz edo eskualdatuz lortutako ondare irabaziak; higigarrien kapitalaren etekinak; sariak; eta errentaren gaineko zergaren arautegiko 77. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz zatian jasotako bestelako etekinak.

Bestalde, sozietateen gaineko zergari dagokionez ere araubide iragankorra ezarriko da 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arteko aldirako, atxikipen tasetarako edo kontu orokorrerako diru sarreretarako eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak itzuliz edo eskualdatuz lortutako ondare irabaziei dagokien atxikipen tasetarako.

Adierazitako aldaketak derrigor jaso behar dira Arabako Lurralde Historikoko zerga araudian, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Lege bidez onartuak, ezarritakoari jarraituz; izan ere, itunak dio atxikipenak eta konturako diru sarrerak egitean, lurralde erkidean aplikatzen dituzten tasa berberak aplikatuko dituztela foru aldundiek.

Azkenik, aldatu egingo da 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hiri ondasun higiezinaren errentamendutik eta azpierreantamendutik lortutako etekinen gaineko atxikipenaren ehunekoak, bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bai sozietateen gaineko zergan.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, ez da aginduzkoa batzorde horren txostena.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

## XEDATZEN DUT

**Lehenengo artikulua. Aldatzea abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena**

Hain zuzen ere, abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenaren, ondoko manuak aldatu dira:

Bat. 92. artikuluko 1. paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“1. Etekinak lanbide jarduera baten kontraprestazioak direnean, ehuneko 18ko atxikipen tasa aplikatuko da ordaindutako diru sarrera osoen gainean.

Horrez gain, ehuneko 15eko tasa aplikatuko da baldin eta jarduera horien etekin osoen bolumena, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko ekitaldiari dagokiona, 15.000 euro baino gutxiago bada eta zergadunak ekitaldi horretan ekonomia jardueretatik eta lanetik eskuratutako etekin osoen baturaren ehuneko 75 baino gehiago bada.

Hala ere, zergadunak jarduera profesionala hasten badu, atxikipen tasa ehuneko 9 izango da jarduera hasten den zerga ekitaldian eta hurrengo bietan, baldin eta jarduera hasi aurreko urtean ez badu inolako jarduera profesionalik egin.

Honen aurreko bi paragrafoetan ezarri den atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek etekinen ordaintzaileari jakinaraziko diote inguruabar hori gertatu dela eta ordaintzaileak era egokian sinatuta egongo den jakinarazpena gordeko du.

Ehuneko 9ko atxikipen tasa aplikatuko zaie honako hauei ordaindutako etekinei:

- Udaletako zerga biltzaileei.
- Aseguruaren bitartekariei, kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen badituzte.
- Estatuaren Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen ordezkari komertzialak.”

Bi. Bosgarren xedapen gehigarria aldatu da eta honela geratu da:

“Bosgarrena. Zenbait atxikipen tasa aldatzea, 2015eko abenduaren 31 arte.

2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31 arte, biak barne, aldatu egiten dira arautegi honen manu hauek:

a. Aldatu egiten da 87. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

**87. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa**

Higigarrien kapitalaren etekinetan egin beharreko atxikipena kalkulatzeko, atxikipen oinarriari ehuneko 20ko portzentajea aplikatuko zaio.

b. Aldatu egiten da 93. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

**93. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetza edo akzioak itzuliz edo eskualdatuz lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenen zenbatekoa**

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, atxikipen oinarriari ehuneko 20ko portzentajea aplikatuko zaio.

c. Aldatu egiten da 96. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

**96. artikulua. Sarien gaineko atxikipenen zenbatekoa**

Diruzko sarien gainean egin beharreko atxikipena haien zenbatekoaren ehuneko 20 izango da, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenaren, hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedaturikoetan salbu.

d. Aldatu egiten da 97. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

**97. artikulua. Higiezin errentamendu eta azpierrentamenduen gaineko atxikipenen zenbatekoa**

Hiri higiezin errentamenduetatik eta azpierrentamenduetatik datozen etekinen gainean egin beharreko atxikipena, haien kalifikazioa edozein delarik ere, errentatzaileari ordaintzen zaizkion kontzeptu guztien gainean ehuneko 20ko portzentajea aplikatuz ateratzen dena izango da. Balio erantsiaren gaineko zerga hortik kanpo dago.

e. Aldatu egiten da 98.2 artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

2. Ordaindutako sarrera osoen gainean ehuneko 20ko atxikipen tasa aplikatzearen emaitza izango da foru dekretu honen 77.2.b) artikuluan xedatutako gainerako kontzeptuen etekinen gainean egin beharreko atxikipena, edozein dela ere horien kalifikazioa.

Hiru. Seigarren xedapen gehigarria aldatu da eta honela geratu da:

“Seigarrena. 2015ean jarduera profesionalen etekinei aplikatu beharreko atxikipen tasa.

Arautegi honen 92.1 artikuluan xedatutako ehuneko 18ko atxikipen tasa ehuneko 19koa izango da 2015eko urtarrilaren 1a eta 2015eko abenduaren 31 bitartean ordaintzen diren jarduera ekonomikoen etekinen kasuan.

**Bigarren artikulua. Aldatzea abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretua, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duena**

Bat. Xedapen gehigarri bat erantsi da, hamargarrena hain justu; hona:

“Hamargarrena. Zenbait atxikipen tasa aldatzea, 2015eko abenduaren 31 arte.

2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31 arte, biak barne, aldatu egiten dira arautegi honen manu hauek:

56. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

**“56. artikulua. Atxikipen edo konturako diru sarreraren ehuneko**

Atxikipen edo konturako diru sarreraren ehuneko hauxe izango da:

a) Oro har, ehuneko 20.

b) Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo baimena emanda lortzen diren errentei dagokienez, ehuneko 24.

c) Hiriko ondasun higiezin errentamendu eta azpierrentamenduaren kasuan, ehuneko 20.

d) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare irabazien kasuan, ehuneko 20.

e) Loteria eta apustuetako sarietako ehuneko 20 aplikatuko zaie, baldin eta zenbatekoagatik zenbait loteria eta apusturen gaineko karga berezia (azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenaren, hemezortzigarren xedapen gehigarrian araututakoa) jasaten badute eta karga horretatik salbuetsita ez badaude. Horrelakoetan, kargapean eta salbuetsi gabe dagoen sariaren zenbatekoari aplikatuko zaio atxikipena, xedapen gehigarri horretan ezarritakoarekin bat etorritik.”

Bi. 37. artikuluko 1. paragrafoko a) letrari beste idazkuntza bat eman zaio eta honela geratu da:

“a) Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balorizatzea. Halakotzat hartuko dira norberaren zein beste batzuen hondakinak murrizten saiatzen direnak, uztailearen 28ko 22/2011 Legeak, hondakinenak eta lurzoru kutsatuenak, eta berau garatzen duen araudiak emandako

definizioen arabera. Horretarako, balioztatzearen barruan sartzen dira birziklatzea (konpostajea eta biometanizazioa barne) eta balorizazio energetikoa.”

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenaren, zazpigarren xedapen gehigarria.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 16a

*Diputatu nagusia*

**JAVIER DE ANDRÉS GUERRA**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*

**AITOR URIBESALGO LORENZO**

*Ogasun zuzendaria*

**JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO**